



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

## **BAKARTXO TEJERIA** **Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 4a**

Arratsalde on, Gasteiz! Hauteskunde-kanpainari hasiera eman diogu. 15 egun barru botoa emango dugu. Aukeratu egin behar dugu. Eta bi aukera daude: PNV edo EH Bildu. Ez dago besterik. Maiz entzungo duzue kanpaina honetan, hori baita jokoan dagoena.

Nik argi daukat herri honetan politika egiteko bi modu oso desberdin daudela. Batzuek gure egiten ditugu euskaldunen nahiak, helburuak eta beharrak. Herri honen lehentasunak beste edozein interesen aurretik jartzen ditugu. Guztion ongizatea edozein gai pertsonal edo alderdikoiaren gainetik jartzen dugu. Hori izan da, da eta izango da Euzko Alderdi Jeltzalearen politika egiteko modua. Gobernuan naiz oposizioan, gure helburua beti berdina da: herri honen eta bertan bizi diren pertsona guztien alde lan egitea, hori da gure eredia.

Baina politika egiteko beste modu bat ere badago, guk eraikitzen genuen bitartean, beste batzuen jarrera bestelakoa izan da: "zenbat eta okerrago hobeto". Trabak jarri eta eraikitakoa suntsitzen saiatu dira. Eta ez naiz ari duela hamarkada batzuk gertatzen ari zenaz solik, azken legegintzaldi honetan pairatu dugunaz ere bai. PNVren kudeatzaile onaren ospea zikintzeko denak balio izan du.

Hori da batzuen eta besteen politika egiteko modua. Eta hauteskunde hauen giltza horretan datza. Herri honen beharrei erantzuteko bi modu horien artean aukeratzea. PNV edo EH Bilduren artean aukeratzea.

15 egun ditugu aurretik, zer egin dugun eta zer egin nahi dugun azaltzeko. PNV etxeko lanak eginda iritsi da kanpaina honetara. Egindakoaren bermea dugu. Zailtasun guztien gainetik aurrera doan herri bat dugu, guztion eskubide politiko, zibil, ekonomiko eta sozialak bermatzen dituen eredu bat dugu.

Herritarren % 79ak uste du Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela, eta % 70ak uste du bere lan egoera oso ona edo nahiko ona dela. Ez dugu guk esaten, herritarrek diote Euskal Soziometroan.

Gu Euskadi hobetzen jarraitzeko indarberrituta aurkezten gara hauteskundeetara. Ilusioa eta proposamen berriak ditugu herri honen beharrei erantzuten jarraitzeko, hemen bizi garen pertsonen arazoei aurre egiteko.

Eta horretarako, talde sendoa dugu Imanol Pradales buru delarik. Euzko Alderdi Jeltzalea gara. Eta orain bozkak behar ditugu PNVk herri hau lideratzen jarraitzeko, Aitaren Etxea defendatzeko.

Badakizue, EAJ-PNVk gobernatzea nahi baduzu, eman botoa EAJ-PNVri.

Gora Euskadi askatuta!